

Jordi Jolyk Bartzelonako eta San Cugat del Vallésko esperientziak ekarriko ditu Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarera

***Sarearen egungo proiektuak Praktika Onen gidaliburua eta Bidaia-orria egitea dira, udal gardenagoa lortzeko asmoarekin**

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak gauzatzen duen lanaren testuinguruan, kudeaketa publikoan eta udal gardentasunaren esparruan erreferentea den Jordi Jolyk hitzaldia eskainiko du, San Cugat del Vallésko eta Bartzelonako udalerrien esperientziak oinarri hartuta. Jolyk erantzukizuneko karguak izan ditu udalerri bietan, eta erakutsiko du eraginkortasunez kudeatzeko lana ez dagoela udal handientzat bakarrik erreserbatuta.

Halaber, tokiko kudeaketarekin erlazionaturiko adierazleekin gardenak izateko garrantzia gogoraraziko du, izan ere, herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute eta udal arduradunak ere gero eta kontzienteagoak dira.



Jordi Joly, Bartzelonako Udaleko Ekonomia eta Ekonomi Sustapeneko egungo gerentea.

San Cugat del Vallésko Udaleko Ekonomia eta Antolakuntzako alkateorde ohia.

"Eraginkortasunaz eta ondo egindako lanaz hitz egitea gustatzen zait"

"Politika kudeaketara hurbilaraztea ahalbidetu behar da"

"Gardentasuna udal kudeaketaren eraginkortasunean eta efizientzian" tailerra

Eguna: asteazkena, 2013ko maiatzaren 8a

Ordua eta lekua: 10:30etik 12:00etara. EUDELen Ekitaldi Aretoa (Ercilla kalea 13, Bilbao)

Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarea

EUDELe duen lerro estrategikoetako bat udal gardentasunaren sustapena da. Euskadin tokiko gobernu gardenagoak eta herritarrei irekiagoak eraikitzeke **lankidetzak estrategiak** partekatzen dituzten 24 udalez osatutako talde pilotuak osatzen du Sarea.

Une honetan, Sareak **2 proiektu ditu martxan**: Euskadiko eta Estatuko Udalerrien Gardentasunerako **Praktika Onen** gidaliburua eta **Bidaia-orri** bat, udalek udal gardentasunean hasteko edo aurrera egiteko eman beharreko urratsak zehazteko.

➤ **Informazio gehiago:** udaltransparencia@eudel.net eta www.eudel.net/destacados/transparencia-n.